

Erandioko toponimia historian zehar

Erandioko toponimia, herri euskaldunaren toponimia

Gaur egun Erandiok duen irudia, azken mendean bizi izan duen eraldaketaren ondorioa da, industrializazioarena, alegia. Hala ere, zati handi batean, baserri aldean, ondo gorde du mendeetan izandako itxura bera; eta beraz, bere toponimiak ere herritarren memorian bizirik iraun du.

Erandioko leku-izenak, memoria historikoaren zein azken mendeko historia berriagoaren lekuko dira. Udalerri honek geografikoki duen banaketa bereziak, bai eta bizilagunen hizkuntzek ere eragina izan dute leku-izenetan; horrela, han-hemen euskarazko nahiz gaztelaniazko toponimoak topatzen ditugu; eta esan beharra dago, modu ezberdinean desagertu, ordezkatu edo itxuraz aldatu direla hizkuntza bateko edo besteko aldaerak.

Nolanahi ere, Erandiok toponimia aberatsa du, eta ondare hori gorde beharra dago, bere historiaren lekukorik zintzoena baita.

Egindako ikerketak erakutsi egin du Erandioko toponimia historiko ia guztia euskalduna dela, eta horrek argi adierazten du Erandio eta erandioztarrak nagusiki euskaldunak izan direla. Gainera, zorionez, Erandion toponimia ondo zaindu izan da, izan ere baserri-aldea oso handia da, eta bertako bideek inguruko baserri-izenak gorde dituzte. Baina, euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitzak eragin zuzena izan du toponimian ere, eta jatorrizko izenak aldatu edo desitxuratu egin dira elkarreragin horren ondorioz; fenomeno normala, bestalde, ukipen egoeran dauden hizkuntzetan.

Azken mendeko gizarte-aldaketek, Erandioko zenbait gunetan erdara nagusitzea ekarri dute, eta horrela, toponimian ere horren ondorioak argiak izan dira. Astrabudua edo Alzaga auzoetan batik bat, erdal toponimoak ageri izan dira, denak XX. mendean. Bestalde, euskal toponimoetan, gazteleraren eragina nabari da. Bereziki auzo izenetan edo baserri multzoetan erantsi ohi den amaierako *-s* dugu horren erakuslerik argiena (*Alzagas*, *Arriagas* eta abar). Fenomeno hau oso

Toponimia de Erandio, toponimia de un municipio euskaldun

La imagen que presenta hoy en día el municipio de Erandio es consecuencia de la transformación que ha sufrido en el último siglo, debida, principalmente, a los efectos de la industrialización. De cualquier manera, este municipio ha preservado, al menos en gran parte de la zona rural, un aspecto muy semejante al de varios siglos atrás por lo que la toponimia de antaño se ha conservado también viva en la memoria de la gente del lugar.

Los topónimos de Erandio son testigos tanto de la memoria histórica como de la historia reciente del último siglo. La peculiar distribución geográfica del municipio, así como la lengua de uso de sus gentes, han tenido una influencia notable en los topónimos de Erandio. Así nos encontramos con topónimos tanto en euskera como en castellano, topónimos que han evolucionado, desaparecido o transformado de forma diferente según la lengua dominante en cada periodo.

En cualquier caso, Erandio tiene una toponimia muy rica que constituye un patrimonio a preservar, puesto que es el testigo más fiel de su historia.

La labor de investigación realizada ha revelado que prácticamente la totalidad de la toponimia histórica del municipio es euskaldun, lo que da a entender, claramente, que Erandio y sus habitantes hablaban mayoritariamente en euskera. Además, por fortuna, se ha podido preservar la toponimia del municipio gracias a que la zona rural es muy extensa, y los caminos de dichas zonas han conservado los nombres de los caseríos. Sin embargo, la convivencia entre el euskera y el castellano ha tenido un impacto directo también en la toponimia, y muchos nombres originales han variado o se han desfigurado como consecuencia de esa interacción entre ambas lenguas, fenómeno que, dicho sea de paso, es totalmente normal entre lenguas que se encuentran en contacto.

Los cambios sociales acontecidos durante el último siglo han hecho que el castellano se imponga en amplias zonas de Erandio, y esa situación ha tenido visibles consecuencias en la toponimia. Los topónimos no-vascófonos aparecen, sobre todo, en los barrios de Astrabudua y Altzaga, todos ellos en

Toponimia de Erandio a lo largo de la historia



zabaldua dago inguruko herrietan ere, Txorierrin eta Uribe Kostan bereziki. Gaztelaniaren eraginezko fenomeno da amaieran –s pluralgilea sartzea, eta beraz, ahozko erabileran ere baztertu beharreko joera dugu.

Erandioko etxaldeak mendez mende

Pentsa daiteke Erandio sano aldatuta dagoela industrializazioaren ondorioz; baina, egia esateko, aldaketa handienak Altzaga eta Astrabudua auzoetan gertatu ziren; horrela, gainerako auzoetan aldaketa nabarmen gutxi izan da. Horren erakusle da, XVII. mende amaieran Erandion zeuden etxalde gehienak, gaur egun ere zutunik jarraitzea.

Inguruko herrietan ez bezala, Euskal Herrian etxaldee¹ edo baserriei izena eman izan zaie, eta ematen diegu oraindik ere. Etxeak Euskal Herrian aparteko garrantzia izan du, etxaldearekin lotura estua izan dugu beti Euskal Herriko bizilagunok; horrela, etxeek eman dizkigute euskal herritar askori abizenak. Horren erakusle ditugu, Erandioko zenbait abizen ezagun: Martiartu, Aio, Arondo, Liboa, Trabudua, Altzaga, Mota, Askorra, Astika eta abar.

Hori dela eta, etxalde-izenak dira toponimia lanetan interes handiena pizten dutenak, gure arbaso eta historiaren berri ematen baitigute.

¹ Erandioko euskaraz etxalde esaten zaio eraikinari berari eta inguruari; eta baso edo landa gune zabalari baserri esaten zaio.

el siglo XX. La influencia del castellano es también manifiesta en cantidad de topónimos vascos. La -s del plural que se agrega en los nombres de barrio o conjuntos de caseríos (*Alzagas, Arriagas*, etc.) es la muestra más evidente de lo dicho anteriormente. Este fenómeno está muy extendido también en los municipios contiguos, especialmente en el valle del Txorierrri y en Uribe Kosta. La inclusión de la -s pluralizadora es un fenómeno propiciado por la lengua castellana, que no responde a una evolución propia de los nombres de lugar originariamente en euskera por lo que es una forma incorrecta que no se debería utilizar, tampoco en el uso oral.

Los caseríos de Erandio a lo largo de los siglos

Erandio ha cambiado mucho a consecuencia de la industrialización, pero a decir verdad, los cambios más relevantes sucedieron en los barrios de Alzaga y Astrabudua; así, en los demás barrios de Erandio han ocurrido muy pocas transformaciones reseñables. Prueba de ello es que muchos de los caseríos que ya existían a finales del siglo XVII hoy día sigan en pie. Al contrario que en otras zonas, en Euskal Herria siempre ha existido la costumbre de ponerle nombre a los caseríos¹, costumbre que perdura todavía. La casa ha tenido una gran importancia y sus habitantes han estado íntimamente ligados a ella. Así, los nombres de las casas se han convertido en apellidos, como es el caso de apellidos tan conocidos en Erandio como Martiartu, Aio, Arondo, Liboa,

¹ En el euskera de Erandio, se denomina *etxalde* tanto al edificio de la casa como a su entorno, mientras que se utiliza la palabra *baserri* para nombrar el bosque o la zona amplia de terreno alrededor del caserío.





Hona hemen Erandioko etxalde-izenen ezaugarri nagusiak:

Erandioko etxalde-izen gehienak, zaharrenak batez ere, baserria bera izendatzeko sortutako izenak dira; arestian ikusi dugun bezala baserri izenetik sortu dira hainbat deitura ezagun. Hala ere, badira berriagoak ere, jabearen abizenetik hartu dutenak izena.

Etxaldeak, gehienetan taldeka antolatzen dira, eta gutxi dira bakarrik izendatzen direnak. Horrela asko eta asko baserri multzoak izanik, euren artean bereizteko kokalekua edo etxearen izena adierazten duen hitza gehitu ohi zaio.

□ *atzekoa* edo *ostekoa* (askotan forma biak txandakatu izan dira, atzekoa zaharragoa izanik, *ostekoa*, *osteikoa*, *ostaikoa* edo *osteinkoa* bezalako formak txandakatuz joan dira): **Astikaosteikoa**, **Agi-rreostekoa**, **Araukoatzekoa**.

□ *aurrekoa* eta *erdikoa*: **Astikaurrekoa** eta **Astikaerdikoa**.

□ *goikoa* edo *goitia*, *beaskoa* edo *bekoa*: **Martiantugoitia**, **Beitigoikoa** eta **Beitibekoa**, **Askorbeaskoa**.

□ *barria* edo *etxebarria*, *zarra* edo *etxezarra*: **Basagoiti(zarra)** eta **Basagoitibarri**, **Pinuzarra** eta **Pinubarri**.

□ *txikerra* edo *nagusia*: **Mugaburutxikerra** eta **Mugaburu**, **Uribarri(nagusia)**.

Beste zenbaitetan bizilagunak berak ematen dio izena etxeari; horrela, Bizkaia mendebaldean ohikoak dira -ena, ahoz -ne, amaieradun etxe-izenak. Amaierako atzizki honek jabetasuna adierazten du, noren deklinabide kasuaren markatik eratorria baita, eta aurretik jabea edo bizilagunaren izena, abizena, ezizena edo lanbidea joan ohi da. Era honetakoak ditugu **Barberuena** (Arriaga), **barbero** lanbidea zuen batena zela adierazten digu. **Lukierna** (*Lukine*) eta **Alkonena** (*Alkone*) desagertutako edo desagertzeaz dauden Astrabuduko baserri-izenak, *Lukia* eta *Alkon* ezizeneko jabeena zirela adierazten dute. **Txikoena** (*Txikone*) Arriagan Txiko ezizenetik eratorria. **Domekena** eta **Felipena**, **Domeka** eta **Felipe** izeneko jabe edo bizilagunei zor dietena izena. **Mentxakena** edo **Uribena** (*Uribene*), **Mentxaka** eta **Uribe** abizenetatik eratorriak, hurrenez hurren.

Trabudua, Altzaga, Mota, Askorra, Astika... Son los elementos que despiertan mayor interés en los trabajos toponímicos, al constituir el legado de la historia de nuestros antepasados.

Características principales de los nombres de los caseríos de Erandio:

La mayor parte de los nombres, sobre todo los más antiguos, son denominaciones acuñadas para nombrar al propio caserío; tal y como hemos mencionado con anterioridad, varios apellidos conocidos provienen del nombre del caserío. En cualquier caso, también existen nombres más recientes de caseríos que han tomado el nombre del apellido de su propietario.

Habitualmente los caseríos se encuentran agrupados y reciben una denominación común. Son pocos los que responden a una denominación en solitario. Al nombre del conjunto se le suele añadir un sufijo o una palabra para designar específicamente cada casa.

□ *atzekoa* u *ostekoa*, para denominar los que se encuentran detrás del principal (es muy común la alternancia entre estas dos formas, siendo *atzekoa* la más antigua; en lugar de *ostekoa*, a menudo aparecen las formas *osteikoa*, *ostaikoa* u *osteinkoa*), **Astikaosteikoa**, **Agirreostekoa**, **Araukoatzekoa**.

□ *aurrekoa* y *erdikoa*, denominando a los de delante o en medio: **Astikaurrekoa** y **Astikaerdikoa**.

□ *goikoa* o *goitia* y *beaskoa* o *bekoa*, para *los de arriba* o *abajo*: **Martiartugoitia**, **Beitigoikoa**, **Beitibekoa**, **Askorbeaskoa**.

□ *barria* o *etxebarria* y *zarra* o *etxezarra*, para *los nuevos* o *viejos*: **Basagoiti(zarra)** y **Basagoitibarri**, **Pinuzarra** y **Pinubarri**.

□ *txikerra* y *nagusia*, denominando al menor, por un lado, o al principal, por el otro: **Mugaburu-txikerra** y **Mugaburu**, **Uribarri(nagusia)**.

En otros casos, la denominación de la casa proviene del nombre del morador. En la parte occidental de Bizkaia son muy comunes los nombres de casas terminados en *-ena*, (en su forma oral, *-ne*). Ese sufijo indica pertenencia puesto que se deriva del caso genitivo en euskera (*noren*), precedido por el nombre, apellido, sobrenombre u oficio de la persona propietaria o del morador. Ejemplo de ello es **Barberuena**, nombre que nos indica que allí vivía una persona de profesión barbero. **Lukie-**





Erandio Herria

Erandio izenaren jatorria azaltzeko etimo argirik ez dago. Batzuen ustez "ibar handia" (bega+handia) esanahia du. Beste batzuek, ordea, "aranondo handi" etimoz hitz egiten dute, baina ez dirudite, ez bata ez besteak, oso ulergarriak linguistikaren ikusmoldeetik.

Ikerketa honetarako jasotako dokumentazio zaharretik *Herandio* formaz dokumentatu dugu, hasierako "h" grafiaduna alegia. XV. mendetik Lope García de Salazarren *Las Bienandanzas y Fortunas* izeneko lanean hasi eta XVIII. mendera arteko dokumentazioan *Herandio* da dokumentatzen den ia bakarra, salbuespena 1621eko dokumentu batean jaso dugu. XVIII. mendean, 1722an hain zuzen ere, dokumentatzen da Erandio h-rik gabe, handik aurrera sarriago (1730, 1743 eta 1752), eta XVIII. mende amaieratik aurrera gero eta sarriago, Erandio h-rik gabe nagusitzen hasten da orduan. Badi-rudi, Er- hasieradun toponimoetan ohitura izan dela hasieran h- eranstea: hermita, hernani, Hernio, Hermua bezalako formak oso normalak izan dira.

na (*Lukine*) y **Alkonena** (*Alkone*) son los nombres de dos caseríos de Astrabudua ya desaparecidos o apunto de desaparecer, que nos dan a entender que sus dueños eran personas de apodo *Lukia* y *Alkon*. **Txikoena** (*Txikone*) es el nombre de un caserío de Arriaga derivado del sobrenombre Txiko. Los caseríos **Domekena** y **Felipena**, deben su denominación al nombre de sus propietarios o moradores, Domeka y Felipe, respectivamente. Por último, **Mentxakena** (*Mentxakane*) y **Uribena** (*Uribene*), provienen de los apellidos Mentxaka y Uribe.

El municipio de Erandio

No existe un étimo claro para explicar el origen del topónimo Erandio. De hecho, en opinión de algunos autores, significa "ibar handia" (vega + grande, extensa). Otros autores, en cambio, hablan del étimo "aranondo handi" (ciruelo + grande), pero ninguno de esos dos significados tiene una base lingüística demostrable.

En los textos más antiguos examinados para este trabajo de investigación hemos documentado la grafía Herandio, con "h" inicial. Desde el siglo XV, comenzando por el trabajo de Lope García de Salazar *Las Bienandanzas y Fortunas* y hasta el siglo XVIII, *Herandio* es prácticamente la única forma que aparece en la documentación analizada; la única excepción se ha documentado en un escrito de 1621. En el siglo XVIII, en concreto en el año 1722, aparece la forma Erandio sin "h", y a partir de entonces aparece en varias ocasiones más (1730, 1743 y 1752). Ya a partir de finales del siglo XVIII aparece más profusamente, y la grafía sin "h" comienza a ser la predominante. En cualquier caso, parece que ha sido una costumbre común añadir la "h" a los topónimos que comienzan por Er-: hermita, Hernani, Hernio, Hermua...

